

**ARRASATEKO TOPONIMIA**

*Onomasticon Vasconiae, 15*

*Arrasate/Mondragon, 1996-VI-14*



## ARRASATEKO TOPONIMIA

### *Onomasticon Vasconiae, 15*

**Aurkezpena:**

*Arrasate, 1996-VI-14  
Jose Luis Lizundia,  
Onomastika batzordekidea*

Azkenengo hitza hartuko duena interbenzioetan, ez naiz agurraz edo despedidaz ari, Jose Luis Ormaetxea da, liburu egilea. Hasiera baten pentsatu genuen liburu honen aholkulari izan den Patxi Salaberri etortzea, baina selektibitate eta azken orduko zerbaitegaitik ezin izan da etorri eta hori berak esan dit espreski adierazteko, denon aurrean. Bera Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaske da, eta lehen aipatutako arrazoi horiengandik, ez du hemen egoterik. Esan behar dut Onomasticon sail honetan badirela liburu batzuk, gehienak gahinera, udalbarrutiei edo udalerriei dedikatuak. Iruñerriko 6, beraz, cendea bakoitzari eta hiriari seigarrena eta horrez gain, Pasaian eta Andoainen hasi zuten bidean, Pasaia eta Andoaingo Udalak, Pasaia eta Andoaingo toponimia liburuak Euskaltzaindiko kolekzio honetan sartzea, Eibarkoak gero hartu zuten txanda eta orain Arrasatek, ez dut uste azkena izango denik. Gero, behar bada, galdera-erantzunen bat prentsakoren batek edo zuetariko batek galdetzea nahi badio egileari, gero-rako uzten dugu hori eta *Arrasateko toponimiaren* egileak du hitza orain, beraz, Jose Luis Ormaetxeak. Bene-benetan eskerrak Arrasateko Udalarari eta Kutxa Fundazioari.



# ARRASATEKO TOPONIMIA

*Onomasticon Vasconiae, 15*

*Arrasate, 1996-06-14*

*Jose Luis Ormaetxea,  
'Txipi'*

## I. SARRERA

Ez didate denbora zehatzik ezarri lan honen azalpena egiteko. Nire esku utzi dute. Nire barruak esaten zidan azalpen laburra egin behar nuela, jendea ez aspertzeko. Eta baten edo besteren iritzia bide beretik zihoan. Baina bada, bestalde, lanaren kronika egiteko behar dudan denbora guztia hartzea gomendatu didanik. Hortaz, zer egin?

Duela 8 egun, ekainaren 6an, hementxe bertan Eusko Ikaskuntzak argitaratu dituen hiru liburuki aurkeztu ziren (FUENTES DOCUMENTALES DEL PAIS VASCO bildumako *Colección documental del Archivo Municipal de Mondragón, II., III. eta IV. tomoak*). Ekitaldi laburra izan zen, ordu erdi edo. Eta bukatu zenean, ondoan nuen adiskideak, nik euskara baino latina hobeto ezagutzen duena bera, honelako zerbait bota zidan belarri ertzer: “SI BONUM BREVE, DUPLICITER BONUM”, gure berbetan, gutxi gora-behera, “ona laburra, bi aldiz ona” esan gura duena. (Badaezpada latin hiztegieta begiratu dut eta ez dut aurkitu esaera hori. Ez dakit adiskideak egokitua den, baina berdintsu dio, okasiorako ondo datorkigu eta).

Orduan, pentsatu nuen nik ere antzeko zerbait egin behar nuela. Saiatuko naiz, beraz, tartean geratzen. Zaila da, batetik, hainbeste ordu eskaini zaion lan baten gora-beherak bi minututan azaltzea, eta ez da bidezko, bestetik, xehetasun guztiak kontatuz jendea aspertu eta nekaraztea.

(Bide batez, agintzen ari naizena betetzen ez badut, mesedez norbaitek keinu bat edo egin diezadala azalpenarekin bukatzeko).

Goazen, bada, suabe-suabe gaiarekin sartzera.

Gaur, batez ere zer eta nola egin dudan, eta zer ez dudan egin ere azalduko dut, baina ez naiz toponimiari buruzko teoriak arituko (horretaz badago hemen nik baino askoz gehiago dakienik). Ez dut ere Arrasateko toponimiaren azterketarik egingo, ez eta hemengo leku-izenen berezitasunak eta bitxikeriak aipatuko, nahiz eta eskuarki azken honi buruzkoa izaten den kazetarien galderarik behinena. Edozelan ere, agian galderen garai honetaz eta beste kontuez hitz egiteko aukera izan dezakegu. Ni, ahal dudan neurrian, gustura saiaturiko naiz erantzuten.

## II. LANA NOLA GAUZATU DUDAN

Historia apur bat. Lanean bi fase edo aldi bereiziko ditugu.

### II.1. Lanaren lehen fasea (1990-1992)

1.990eko udazkenean lan hau 14 hilabetetan egiteko beka bat atera zuen Arrasateko Udalak, udalerriko leku-izenen bilketa zelarrik helburu nagusia.

1992ko udaberrian “bukatua” nuen lana eta Udalarari entregatu nion.

Idea orokor bat izateko, batez ere hemengoak ez zaretenok, Arrasateko udalerraren hedadura ia 31 km<sup>2</sup>-koa da. Inguruko herriekin konparatuz, Aretxabaleta baino handitxoagoa, baina Eskoriatza baino txikiagoa. Bestalde, Bergara eta Aramaïoren erdia ere ez da, eta Oñati Arrasate baino 3,5 aldiz handiagoa da.

Bestalde, betiko baserri-auzoak hartu ditut kontuan, hots: hirigunea inguratzen dutenak (*San Andres, Meatzerreka, Zaldibar* eta *Musakola*), garai batean UGARAN bailara osatzen zuten elizateak, 1353. urteaz geroztik Mondragoeri atxikiak (*Gesalibar, Garagartza, Uribarri* eta *Udala*), eta, azkenik, 1966 arte Aretxabaletako auzo izan zen eta ordutik Arrasatekoa den *Bedoña* auzoa. Baserri-auzoetz aparte, Arrasateko hirigunea edo hiri barrua ere kontuan izan dut.

Egindako lana:

a) **Dokumentuetatik bildutakoa.** Iturri idatziak: Arrasateko Udal Artxiboa (ze-darriztaketak, erroldak, e.a.); Gipuzkoako Foru Diputazioko Artxiboa (amilaramenduak); Oñatiko Gipuzkoako Protokoloen Artxibategi Historikoa; bestelako iturri bibliografikoak (Garibay, Juan Carlos Guerra, Mitxelena *Textos Arcaicos Vascos*, e.a.).

b) **Ahozkoa.** Auzo eta baserri inguruko toponimiari jarri genion lehentasuna. Ohikoa den materiala erabili genuen: 1:5.000 eskalako mapak, kaseta eta zintak, koaderno... Auzo bakoitzean zenbait baserriaren laguntza izan genuen eta normalean inkestak *in situ* egin genituen.

Hemen aipatu beharko nuke horrelako lanetan genbiltzanok Deustuko Unibertsitateko DEIKER institutuak 1991ko udaberrian emandako ikastaro bat jaso genuela, toponimoen ahozko bilketan metodologia bateratua erabiltzearen.

### II.2. Lanaren bigarren fasea (1993-94)

Lana Udaletxean entregatu eta zenbait hilabetetara Euskaltzainditik gutun bat jaso genuen, non J. C. Guerraren artxiboa aztertu beharko nukeela iradokitzen zen. Horrela, jarraipena eman nion lanari, dokumentazio gehiago aztertuz: batez ere, Juan Carlos Guerraren artxiboa (Monterron liburutegian mikrofilmaturia dagoena), baina baita ere beste batzuk: Jose Letonaren artxiboa, Oñatiko Protokoloen Artxibategia, Eusko Ikaskuntzak argitaraturiko *Colección Documental del Archivo Municipal de Mondragón* 1. liburukia, e.a.

Bigarren txanda honetan lehengo lana osatu eta hobetu egin zen.

Ahozkoari dagokionez, lehen ikutu gabe utzi nuen hiri barrukoa aztertu nuen apur bat.

Dena den, hemen esan beharrekoa da nik iaz 2. aldi honetako lana Arrasateko Udalarari entregatu ondoren, Arrasateko leku-izen ugari azaltzen den liburu batzuk argitaratu direla. Alde batetik, José Angel Achón Insaustiren doktoretza tesia, *A voz de Concejo* izenarekin Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratua. Liburu hau oso ona delakoan nago, nahiz eta nik Historia kontuetan askorik jakin ez. Eta gureari dagokionez, aitortu behar dut Erdi Aroko antroponimia eta toponimiaz berri zehatz eta ugaria ematen digula. Izan ere, badira hor, eta hau pena apur batekin diot, nik jaso gabeko zenbait toponimo eta beste askoren lekukotasun zaharraokak.

---



---

ONOMASTICON VASCONIAE

---



---

15

---



---

JOSÉ LUIS ORMAETXEA LASAGA

ARRASATEKO  
TOPONIMIA




---



---

EUSKALTZAINDIA

---



---

1996

Bestetik, sarreran aipatu bezala, zenbait egileren artean egindako eta Eusko Ikaskuntzak argitaraturiko 3 liburuki argitaratu ziren aurreko astean (FUENTES DOCUMENTALES DEL PAIS VASCO bildumako *Colección documental del Archivo Municipal de Mondragón, II., III. eta IV. tomoak*). Lehen esan ez badut ere, 2. aldi honetan Eusko Ikaskuntzako Donostiako egoitzan izan nintzen zenbait alditan, hain justu liburuki hauetan datozen dokumentuak aztertzen. Beraz, neurri handi batean ezagutzen nuen lan hau, baina duela 11 urte burutua izan zen transkripzio lana lehenago argitaratu izan balitz, neuretzako ere mesedegari zatekeen.

Hemen, izan ditudan zailtasunez hitz egin beharko nuke, baina larregi luzatuko naitzen beldurrez, bere horretan utziko dut.

— **Normalizazioa.** Patxi Salaberri Zaratiegi honetaz aritu denez, nik ez dut gauza handirik esango. Saiatu gara toponimo bakoitzari forma normalizatu bat ematen. Aipatu behar da iaz lana bukatu ondoren Patxi Salaberri Eskaltzaindiko Onomastika batzordearen izenean egindako ohar ugariak kontuan hartuak izan direla oraingo argitalpenarako. Ez da agian momentua normalizazioak sortarazten dituen arazoak komentatzeko. Orokorrean esan ortografiari dagokionez Euskaltzaindiak emandako arauak jarraitu ditugula. Eta honelakoetan egin ohi den bezala, euskalki mailako berezitasunak errespetatu egin ditugu. Esaterako, *Basobaltz* normalizatu dugu eta ez *Basobeltz*, *Etxebarri* eta ez *Etxeberri* edo *Udalatx* eta ez orain ia alde guztietan azaltzen den *Udalatz*.

— **Lanaren aurkezpena.** Izenburuan, letra beltzez, forma normalizatua dator. Ondoren dokumentazioan jasotako aldakiak, dokumentua eta urtea. Etxe edo baserrien kasuan, dokumentu zaharretako deiturak ere jaso ditugu. Gero ahoz jasotako aldakiak. Eta, azkenik, batzuetan oharrak ere jarri ditugu.

Ondorioz:

Egin duguna, batez ere, Arrasateko leku-izenen bilketa eta normalizazioa izan da, ur sakonagoetan sartu gabe.

### III. ZER EZ DA EGIN?

Esaterako, ez dut toponimoen azterketa egin. Etimologia ere gai tentagarria da, baina hemen ez duzue horrelakorik aurkituko. Badakit azterketa etimologiko serio batek asko jantziko lukeela lan hau, baina baziren bi arrazoi lan horri ez oratzeko: alde batetik, ez zen bekaren helburua, eta, bestetik, neure burua ez dut ikusten behar beste jantzita horretarako. Hala ere, konturatzen naiz agian ohar etimologikoak ere jarri behar nituela noizbehinka, polemika piska bat sortzeko besterik ez bada ere. Bertakook badakigu herriaren izenak berak (*Arrasate*) duela bi urte sortarazi zuen eztabaida. Eta gauza bera gerta daiteke beste izen askorekin. Gainera, jendeari gogoko zaio izenen atzean zer dagoen jakitea. Xabier alkateari, beharbada, eta ulertzekoa denez, *Intxausti* toponimora lerratuko zaizkio begiak. Kasu horretan, dena dela, ez dago azalpen askoren beharrik, berak nik baino hobeto baitaki zer dagoen izen horren atzean.



Baina, beti ez da horrela. Esaterako, hemen oso leku ezaguna da *Zaldibar*. Mundu guztiak **zaldi + ibar** interpretazioa egiten du. Garibai berak ere hala zioen:

“(...) el prado, llamado Çalguibar (...) llamado primero Çaldiybar, que en lengua de la mesma tierra significa paramo, o valle de cavallos donde muchos bandoleros y malhechores se recogian...” (1571)

Nik ez dut hain argi ikusten. Aurkitu dudak dokumentazioan *Zalgibar* da zaharra-goa eta horrek agian beste interpretazio bat egitera eraman gaitzake (**zalge** “veza, cierta hierba dañosa” edo **zalgi** “cizaña, mala hierba”).

Beste auzo bat badago, *Musakola* edo *Zigarrola* deitzen dena. San Isidrotan atera zuten jaietako programan “*Musakola edo Ziarrola*” ipini zuten, azken hau **g** gabe dela azpimarratuz. Eta hala da ahozko hizkeran. Baina non dago hitz horren jatorria? Nik oraindik ere zenbait baseritarri “*Siorla*” entzun izan diet, eta ahoskera hau bat dator dokumentazioarekin (XIX. mendera arte beti izan da *Ziorrola / Zigarrola* eta ez *Zigarrola*).

Ez da kontu erraza, beraz. Eta bego horretan.

Beno, goazen bukatzen, bestela lo hartuko didazue eta.

Ordu dezente eman dut lan honetan eta esango nuke Arrasateko leku-izen asko bilduak direla liburuan. Baina ez daude denak. Duela gutxi orain Aramaion bizi den nire auzoko (Gesalibarreko) lagun batek hemen agertzen ez diren 3-4 izen bota zizkidan, eta ez dakizue zer amorrua hartu nuen. Eta horrelako beste asko izango dira auzo guztietan. Beraz, bihotzez eskertuko nuke jendeak hemen agertzen ez diren leku-izenen berri emango balu (edo balit). Bestalde, oraindik eskritoretan eta paper zaharretan ere lo daudenak ez dira gutxi izango. Ni jarraitzeko asmotan nabil, baina beste norbait ere animatzen bada, hainbat hobe.

Bestalde, labur-labur, dei bat hedabideetan lan egiten dutenei. Jakina da hedabideek gaurko gizartean duten indarra eta eragina. Beraz, garrantzitsua da hedabideek hizkuntzaren kalitatean eta gaurko gaiari dagokionean, onomastikan, duten erantzukizuna. Askotan izen bera (*Santa Marina, Kontzeizino, Kanpanzar...*) modu desberdinetan ikus daiteke eta horrelakoetan batasunerantz eta normalizaziorantz jo beharko genuke. Pozez aitortu behar dut, hala ere, azkenaldion gehiago zaintzen dela arlo hau.

Eta azken hitzak, eskerrak emateko.

Lehenik eta behin, eskerrak Arrasateko Udalari, hau eta horrelako beste lan asko bultzatu eta diruz lagundu dituelako, eta Euskaltzaindiarekin eta Kutxarekin bat hartuta argitalpen hau aurrera atera duelako.

Mila esker Arrasateko baserritarrei, haien laguntzarik gabe nekez maparatuko bainuten hainbeste izen.

Esker mila Patxi Salaberri arabarrari eta beste hainbeste Patxi Salaberri nafarrari; berdin Ander Ros adiskideari, informatizatze lanetan eta bestelakoetan emandako laguntzagatik.

Eskerrik asko Monterrongo liburutegiko arduradunei, erraztasun guztiak eman dizkidelako.

Eta bihotzez eskerrak modu batean edo bestean lagundu eta beren maitasuna erakutsi didaten guztiei.

IZENA DUEN OROK  
BEREZ DU IZANA  
SARRI GURE ASABEK  
ANTZINA EMANA  
ERRAZA DA JAKITEN  
ZEIN DEN DENON LANA:  
ZAINDU TA ERABILTZEA  
GEURE ONDARE DANA

## **ARRASTEKO TOPONIMIA**

*Onomastican Vasconiae, 15*

*Arrasate, 1996-06-14*

*Xabier Zubizarreta,  
herriko alkatea*

### **AZKEN HITZAK**

Bukatu egingo dugu honekin, nik uste dut Jose Luisek, Txipik, eman dizkigun adierazpenekin, pixka bat behintzat, lan honen ataria zer nolako den ikusteko aukera izan dugu eta hor dago, hortik aurrera egin daitezkeen beste lan askoren sarrera ezta, abiapuntua. Eskerrik asko beraz, denoi etorri zaretelako. Azkenean, lehen aipatu ditugun batzuk ere etorri dira: Xabier Kintana eta Andolin Eguzkitza Eta besterik gabe utziko dut horretan.